ORDENANTZA ARAUTZAILEA, MUNGIAN BIZI DIREN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO EMANGO ZAIZKIEN DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUENA

ORDENANZA REGULADORA DE LAS AYUDAS DIRIGIDAS A JÓVENES RESIDENTES EN MUNGIA DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDAS.

ARRAZOIEN AZALPENA

Gazteak gurasoen etxetik irteteko duten arazorik handienetakoa etxebizitza bat lortu behar izatea da; hori dela eta, Mungiako Udalak erabaki du ahalegina egitea, bere eskumen-eremuaren barruan, alokairua sustatuko duen etxebizitzen politika publikoari indarra emateko.

Ezinbestekoa da arlo honetan lan egitea gazteei irtenbideak eskaini ahal izateko, batez ere, zentzuzko prezioak izango dituzten alokairuen aldeko apustua eginda. Etxebizitza bat izateko eskubidea bermatze aldera, ezinbestekoa da administrazioa subjektu aktibo izatea. Horrenbestez, Udal Ordenantza bat onartzeko beharrizana dagoela ikusi da; hain zuzen ere, Mungiako udalerrian bizi diren 18 eta 35 urte bitarteko gazteei euren ohiko etxebizitza izango denaren alokairuaren parte bat ordaintzen laguntzeko.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El acceso a una vivienda representa uno de los obstáculos más importantes en el proceso de emancipación de las personas jóvenes y, por ello, el Ayuntamiento de Mungia ha decidido promover, dentro del ámbito de sus competencias, una política pública de vivienda que fomente el alquiler y la permanencia de la juventud mungiarra en una vivienda.

Es necesario trabajar para ofrecer soluciones en esta materia, apostando principalmente por el régimen de alquiler con rentas a unos precios razonables. en aras a garantizar el derecho al acceso a una vivienda, es preciso que la administración sea un sujeto activo. en consecuencia, se ha observado la necesidad de aprobar una Ordenanza Municipal para contribuir en parte al pago del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de las personas jóvenes de entre 18 y 35 años residentes en el término municipal de Mungia.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua.
Ordenantza honen helburua da gazteei burujabe izaten laguntzea eta etxebizitza bat izateko daukaten eskubidea bermatzea.

2. artikulua.- Onuradunak.
Ordenantza honek arautzen dituen diru-laguntzak honako pertsona hauek jaso ahal izango dituzte: 18 eta 35 urte bitarteko pertsonek edo Bizikidetzako Unitateek, eurokin bizi diren adingabekoak izan ezik.

TÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objeto.
Mediante la aprobación de la presente Ordenanza se pretende facilitar la emancipación de las personas jóvenes y garantizar su derecho de acceso a una vivienda.

Artículo 2.- Personas beneficiarias.
Podrán ser beneficiarias de las ayudas que se regulan en esta ordenanza aquellas personas o Unidades de Convivencia en edad de entre 18 y 35 años, con excepción de las personas menores a cargo que cohabiten con las mismas.

II. TITULUA. DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

3.-. artikulua.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.

TÍTULO II. REQUISITOS PARA LA OBTENCIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 3.- Requisitos de las personas beneficiarias.

**1.** Diruz laguntzen den epealdia barne hartzen duen errentamendu-kontratuaren titularrak izatea.

**2.** Eskatzaileak ez izatea –ezta Bizikidetzako Unitateko kide bakar ere–, etxebizitza baten jabe. Era berean, eskaria egiten dutenean ezingo dute izan ez azalera eskubiderik, ez gozamenik.

**3.** Etxebizitza ez edukitzetik salbuetsita egongo dira ondokoak:

a) Jaraunspen edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo gehiagoren titularkide direnak, baldin eta titularkidetza horren portzentajea %50etik gorakoa ez bada eta etxebizitza horien partaidetzak 75.000 €-tik gorakoak ez badira.

b) Etxebizitzaren titulartasuna %50etik gorakoa dutenak, baldin eta etxebizitza hori epaile batek bikoteko beste kideari adjudikatu badio familia-egoitza modura, banantze edo dibortzio prozesuaren ondoren edo izatezko bikotea suntsitzean.

c) Etxebizitza baten jabetza hutsa dutenak, hau da, etxebizitza horren jabe izan arren, etxebizitzaren erabilera edo gozamena beste pertsona baten esku dutenak.

d) Genero indarkeria jasotzeagatik euren etxebizitza utzi dutenak seguru bizitzeko eta egoera hori ziurtatzen dutenak.

e) Etxebizitza baten jabetza dutenak, baldin eta etxebizitza horren jabetza epaile edo notario baten erabaki bidez heldu bazaio, hirugarren mailara arteko odolkidetasunez edo parekotasunez ahaidetasunik ez duen pertsona izanik (ordaintzea ezinezkoa suertatzeagatik hipoteka gauzatu denean eta horren ondorioz titularra etxetik bota delako).

**4.** Bizikidetzako Unitatea osatzen duten kide guztiek egon behar dute erroldatuta Mungian, gutxienez ere 10 urte lehenagotik (azken 15 urteetan). Horretaz gain, diru-laguntzaren indarraldi osoan egon beharko dute erroldatuta.

**1.** Ser titulares de un contrato de arrendamiento que comprenda el período subvencionable.

**2.** Que ninguna persona solicitante o componente de la unidad de convivencia posea vivienda alguna en propiedad, ni disponga de derecho de superficie o usufructo en el momento de la solicitud.

**3.** Están exceptuadas del requisito de tener necesidad de vivienda las siguientes personas:

a) Las que sean cotitulares de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50% y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000 €.

b) Personas propietarias de viviendas cuyo porcentaje de titularidad sea superior al 50% en el caso de que la vivienda haya sido asignada judicialmente como domicilio familiar a la otra persona de la pareja tras un proceso de separación o de divorcio o de extinción de parejas de hecho.

c) Personas propietarias de viviendas que sólo dispongan de la nuda propiedad de las mismas, estando atribuido el usufructo y/o uso a otra persona.

d) Mujeres víctimas de violencia de género que hayan abandonado su vivienda por razones de seguridad y acrediten su situación.

e) Haber sido adjudicada la vivienda, judicial o notarialmente, a una persona con la que no guarda parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el tercer grado tras haber sido objeto de una ejecución hipotecaria a consecuencia de una incapacidad de pago sobrevenida y que la persona titular haya sido desahuciada por dicho motivo.

**4.** Todas las personas pertenecientes a la unidad convivencial deberán hallarse empadronadas en el municipio de mungia durante al menos 10 años, dentro de los 15 años inmediatamente anteriores. además, deberán estar empadronadas durante todo el período de vigencia de la subvención.

| | |
|---|---|
| **5.** Bizikidetzako Unitateak gutxienez ere ondoko diru-sarrerak izan beharko ditu: | **5.** Los ingresos mínimos de la Unidad Convivencial (UC) deberán ser de: |
| a) Gutxienez 6.000 € gordin urtean, pertsona bakarrak osatutako Bizikidetzako Unitatea bada.Gehienez 25.000€ gordin urtean. | a) Mínimo de 6.000€ brutos anuales, en el caso de una UC compuesta por una persona. Máximo 25.000€ brutos anuales. |
| b) Gutxienez 12.000 € gordin urtean, pertsona bik osatutako Bizikidetzako Unitatea bada.Gehienez 35.000€ gordin urtean. | b) Mínimo de 12.000€ brutos anuales, en el caso de una UC compuesta por dos o más personas. Máximo 35.000€ brutos anuales. |
| c) Etxebizitza behar izatearen egoera arautzen duen aginduaren arabera, mugikortasun mugatu iraunkorra duten desgaituen kasuan, baita 1971/1999 Errege Dekretuak, abenduaren 23koak, minusbaliotasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 1.Ako eranskinaren 15. eta 16. Kapituluetan xedatutakoan oinarrituta aitortu ostean, desgaitu psikikoak diren horietan ere, alokairuaren araubidean gutxienezko diru-sarrerak egiaztatzea ez da eskatuko. | c) En el caso de discapacitados con movilidad reducida de carácter permanente, así definidos en la Orden que regule las circunstancias de necesidad de vivienda, o de discapacitados psíquicos, declarados como tales en base a lo dispuesto en los capítulos 15 y 16 del anexo 1.A del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía, no se exigirá acreditar ingresos mínimos en régimen de alquiler. |
| **6.** Bizikidetzako Unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kideek egunean izan beharko dituzte udal zerga, tasa eta isunei dagozkien ordainketak, baita zerga ordainketak eta Gizarte Segurantzakoak ere. | 6. Todas las personas pertenecientes a la UC mayores de 18 años tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas y sanciones municipales, así como en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la seguridad social. |
| **7.** Bizikidetzako Unitatea osatzen duten kideek ezingo dute hirugarren mailara arteko odolkidetasunik edo ahaidetasunik izan errentatzailearekin. | 7. Que ninguna de las personas que comprenda la UC tenga parentesco hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad con la persona arrendadora de la vivienda. |
| 4. artikulua.- Etxebizitzak bete beharreko baldintzak. | Artículo 4.- Requisitos de la vivienda. |
| 1) Diruz lagunduko den alokairuak derrigorrean izan beharko du Mungiako udalerrian dagoen etxebizitza baten gainekoa, eta lehenengoz okupatzeko lizentzia edo bizigarritasun-lizentzia eduki beharko du etxebizitza horrek. | 1)La vivienda a subvencionar deberá estar situada en el término municipal de Mungia y deberá contar con la correspondiente licencia de primera ocupación o de habitabilidad. |
| 2) Etxebizitza hori dagoen eraikinak 50 urtetik gora baditu, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) eginda izan beharko du. | 2)Si el edificio donde se encuentra la vivienda tuviese más de 50 años deberá haber pasado la Inspección Técnica de los Edificios (I.T.E.). |
| 3) Bizikidetzako Unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiek agertu beharko dute errentamendu-kontratuan eta sinatu egin beharko dute. | 3)Todas las personas mayores de 18 años de la UC deberán figurar en el contrato de arrendamiento y suscribirlo. |
| 4) Etxebizitza horren geletakoren bat | 4)En caso de subarriendo posterior de alguna |

azpierrentan eman nahi bada, Mungiako Udalari jakinarazi beharko zaio. Dena den, azpierrentan sartutako pertsona horrek ere (Bizikidetzako Unitateko kidea) bete egin beharko ditu Ordenantza honetan ezarritako baldintzak.

habitación de la vivienda, se deberá notificar al Ayuntamiento de Mungia. En todo caso, la persona subarrendada, parte de la Unidad Convivencial, también deberá cumplir los requisitos establecidos en la presente Ordenanza.

5) Etxebizitzaren alokairuaren prezio osoa ezingo da 700€-tik gorakoa izan, elementu osagarriak sartuta (garajea, erkidegoaren gastuak, kontribuzioa eta arielak).

5)La cuantía total de la vivienda no podrá ser superior a 700€, incluidos los gastos de alquiler anejos (garaje, gastos de comunidad, contribuciones y arbitrios).

6) Errentamendu-kontratua gutxienez ere urtebeterako izango da.

6)El contrato de arrendamiento deberá ser de duración mínima de un año.

## III. TITULUA. PROZEDURA

## TÍTULO III. PROCEDIMIENTO

5.- artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

Artículo 5.- Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

1) Eskariak aurkezteko epea urriaren 30era artekoa izango da (eskaria egiten den urte horretako urria).

1) El plazo para presentar las solicitudes será hasta el día 30 de octubre del año correspondiente para el que se solicita la subvención.

2) Eskaria Mungiako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztu beharko da (Trobika 1).

2) La solicitud se realizará en el Servicio de Atención a la Ciudadanía (SAC/HAZ) del Ayuntamiento de Mungia, en la Calle Trobika 1.

6. artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Artículo 6.- Documentación a presentar.

Eskatzaileak eskabide-orria behar bezala beteta eta sinatuta (I.ERANSKINA) aurkeztu beharko du, baita ondoko agiri hauek ere:

Las personas solicitantes deberán presentar, junto con la instancia debidamente cumplimentada y firmada que figura como ANEXO I, la siguiente documentación:

a) Erantzukizunpeko adierazpena (Udaleko arreta zerbitzuan edo web-orrian, www.mungia.eus, helbidean egongo da eskuragai). Bertan adierazi beharko du: batetik, nortzuk biziko diren errentan hartuko duten etxebizitza horretan edo, bestela, Bizikidetzako Unitatea osatuko duten kide-kopuru jakin bat eman beharko du (konpromiso modura); bestetik, etxebizitzak bete egiten dituela 5. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak; eta amaitzeko, bete egiten direla deialdiaren baldintza bereziak.

a) Declaración responsable, cuyo impreso se facilitará en las oficinas de atención a la ciudadanía y en la web del Ayuntamiento de Mungia (www.mungia.eus), en la que se haga constar los siguientes extremos: personas que van a habitar en la vivienda objeto de alquiler o compromiso del número de personas que vayan a formar parte de la unidad convivencial, que la vivienda reúne las condiciones mínimas establecidas en el art. 5 y que cumple los requisitos específicos de la convocatoria.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, Erakunde ofizial batek helburu bererako ematen duen beste diru-laguntzarik edo laguntzarik jasotzen ez duela adierazten

b) Declaración responsable de no percibir ninguna otra subvención o ayuda gestionada por cualquier Institución u Organismo oficial que repercuta en el mismo concepto.

duena.

c) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria; Bizikidetzako Unitatea osatzen duten eta 18 urtetik gorakoak diren kide guztiei dagokiena.

c) Certificado de estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de todas las personas mayores de 18 años que componen la unidad convivencial.

d) NANaren, bizileku-txartelaren edo indarreko pasaportearen fotokopia, Bizikidetzako Unidatea osatzen duten eta 18 urtetik gorakoak diren kide guztiena. Adingabekoak egonez gero, Familia-liburuaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hori beharrezkoa izango da ondorengotza dagoela egiaztatu nahi den kasu guztietan.

d) Fotocopia del DNI, tarjeta de residencia o pasaporte en vigor, de cada persona mayor de 18 años que conforme la Unidad de Convivencia. En el caso de existir menores de esa edad, se aportará, además, fotocopia del Libro de Familia o certificado de nacimiento. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.

e) Jabetza-erregistroak emandako ziurtagiria, pertsona horiek etxebizitza baten jabe ez direla edo erabilera, gozamen zein azalera eskubide osoa ez dutela adierazten duena; bizikidetzako Unitatea osatzen duten eta 18 urtetik gorakoak diren kide guztiei dagokien agiria izango da hori.

E) Certificado del Registro de la Propiedad de no ser propietaria o propietario de vivienda en pleno dominio, usufructo o derecho de superficie por parte de las personas de la Unidad Convivencial mayores de 18 años.

f) Horrez gain, beste etxebizitza baten jabe izanez gero (jabetza osoa) edo azalera zein gozamenaren gaineko eskubidea %50ekoa bada, eta gainera, etxebizitza hori Bizikidetzako Unitatea osatzen dutenen ohiko bizilekua bada, beste etxebizitza horren/horien herentzia, dohaintza edo eskualdatzea (partaidetzari dagokiona) hartu izanaren eskritura aurkeztu beharko da, baita bere balioari buruzko datua eta bertan bizi diren pertsonen errolda-ziurtagiria ere.

f) Además, en el caso de disponer de una vivienda en propiedad, nuda propiedad, tener derecho de superficie o usufructo sobre ella de menos del 50% y, ésta constituya el domicilio habitual y permanente de otras personas o unidades convivenciales, deberá aportarse escritura de aceptación de herencia, de donación o de transmisión de la venta de la participación en la otra u otras viviendas, su valoración y el certificado de empadronamiento de las personas que en ella tienen su domicilio.

g) Lege-epaia edo hitzarmena arautzailea, baldin eta EAEn dagoen beste etxebizitza baten jabetza, jabetza soila edo azalera zein gozamen eskubidea (edozein portzentaje) duen titularra bada eta etxe hori legeak familia-egoitza bezala bikotearen beste kideari adjudikatu badio banandu edo dibortziatu ondoren edo izatezko bikotea suntsitu ondoren. Agiri horretan ziurtatuko da etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari adjudikatu zaiola; bestela, izatezko bikotea suntsitu dela adierazi duen Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria erantsiko da.

g) Quien sea titular o lo haya sido en los dos años inmediatamente anteriores, de cualquier porcentaje de la propiedad, nuda propiedad, derecho de superficie o usufructo de una vivienda ubicada en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que constituya o haya constituido su domicilio habitual y permanente y su vivienda haya sido asignada judicialmente como domicilio familiar al otro miembro de la pareja tras un proceso de separación o de divorcio o de extinción de parejas de hecho, deberá adjuntar sentencia judicial y convenio regulador donde se certifique que se ha atribuido al otro u otra cónyuge el uso de la vivienda, o certificado del Gobierno Vasco que acredite la extinción de la

pareja de hecho.

h) Bizikidetzako Unitatea osatzen duten kideen Erantzukizunpeko adierazpena, errentatzailearekin hirugarren mailara arteko odolkidetasunik edo bestelako ahaidetasunik ez dutela adierazten duena.

h) Declaración responsable de las personas componentes de la UC de que no existe parentesco hasta tercer grado de consanguinidad o afinidad con la persona arrendadora de la vivienda.

i) Indarrean dagoen errentamendu-kontratua bera edo fotokopia konpultsatua, errentan hartuko den etxebizitza horren kontratuaren titular diren eta Bizikidetzako Unitatea osatzen duten kideek sinatuta. Kontratu horrek diruz lagunduko den epealdian indarrean egon beharko du eta argi agertu beharko du bertan alokairu eguneratuaren zenbatekoak. Ez da onartuko denboraldiko errentamendu-kontraturik. Kontratuaren gutxieneko iraupena urtebetekoa izango da.

i) Original o copia compulsada del contrato de arrendamiento firmado por las personas titulares del mismo y que conformen la unidad convivencial de la vivienda objeto de alquiler, en vigor, abarcando el período subvencionable, con referencia expresa al importe actualizado de la renta. No se admitirán contratos de arrendamiento de temporada. La duración mínima del contrato ha de ser de 1 año.

j) Bankuak emandako titulartasun-agiria, hain zuzen ere, diru-laguntzari dagokion diru-sarrera egiteko kontu-zenbakia interesdun horrena dela egiaztatzen duena.

j) Documento que acredite la titularidad de la cuenta donde se vaya a efectuar el ingreso de la subvención.

k) Alokairua ordaindu izanaren banku-agiria (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua) edo jatorrizko ordainagiria bera, diruz lagunduko dan epeari dagokiona.

K) documento bancario (original o fotocopia compulsada) justificativo del pago de la renta o recibo original, correspondientes al período subvencionable.

l) Adierazpena, Diru-laguntzei buruzkoa den azaroaren 17ko 3872003 Lege Orokorraren 13. artikuluak onuradun izateko ezartzen dituen debeku-egoeretako bakar batean ere ez daudela azaltzen duena.

l) Declaración de no estar incursos e incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario o beneficiaria señaladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

m) Diru-sarrerei buruzko ziurtagiria, Bizikidetzako Unitatea osatzen duten eta 18 urtetiko gorako diren kide guztien diru-sarrerei buruzkoa hain zuzen ere. A edo B kasuak aurreikusten dira:

m) Certificado de ingresos de quienes compongan la unidad convivencial mayores de 18 años, según sea el caso A o B:

**A.** Aitorpena egin behar badu edo PFEZ aurkeztu badu, ondoko agiriak erantsi beharko dira:

A. Si existe obligación de declarar o si se ha presentado el IRPF, deberá de aportarse:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren fotokopia eta jatorrizkoa bera (erkatzeko), iragandako azken zerga-ekitaldiari dagokiona (eskabidea aurkezten den unea erreferentziatzat hartuta).

- Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la Declaración presentada del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al último ejercicio vencido en el momento de presentación de esta solicitud.

- Ordaindutakoaren araberakoa ez den prestazioren bat jasoz gero, prestazio horren/horien ziurtagiria.

**B.** PFEZ egin beharrik ez badu (eta ez bada aitorpen hori aurkeztu), ondoko agiriak erantsi beharko dira:

- Foru Aldundiak emandako ziurtagiria, iragandako azken zerga-ekitaldiari (eskabidea aurkezten den unea erreferentziatzat hartuta) dagokion FPEZ aurkeztu beharrik ez duela adierazten duena

- Lan-biziaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina.

- Gainera, bidezkoa denean:

– Beste baten kontura lan egiten dutenen kasuan, enpresak edo enplegu-emaileak emandako agiria, interesdunak ekitaldi horretan kontzeptu guztiengatik jaso dituen diru-sarrera gordinen berri ematen duena.

– Pentsiodunen edo beka, prestazio edo sorospen hartzaileen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), horien ziurtagiria, ekitaldiari dagokiona.
Udalaren esku dauden Bizikidetzako Unitatearen datuak ez dira aurkeztu beharko, Udalak berak zuzenean batuko ditu, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Horretarako, eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diote Udalari kontsultak egiteko; Datu Pertsonalen Babeserakoa den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikuluak ezarritakoari jarraituta.

– Etxebizitzarako prestazio osagarririk edo antzeko diru-laguntzarik jasotzen ez dutela egiaztatzen duen LANBIDEren egiaztagiriaren fotokopia, Bizikidetzako Unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena.

aa) Etxebizitza ordaintzeko Gizarte-larrialdiko laguntzarik jasotzen ez dutela

- En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.

B. Si no existe obligación de declarar IRPF (y no se ha presentado declaración), deberá de aportarse la siguiente documentación:

- Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF del último ejercicio vencido en el momento de presentación de la presente solicitud.

- Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.

- Además, cuando sea el caso:

– En el supuesto de personas trabajadoras por cuenta ajena, documento expedido por la empresa, empleador o empleadora sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente a dicho ejercicio.

– En el caso de personas pensionistas o perceptoras de becas, prestación o subsidio (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas correspondientes a dicho ejercicio.
Los datos que de las personas que componen la unidad convivencial estén en poder del Ayuntamiento no será necesario recabarlos, dado que serán recabados directamente por el Ayuntamiento, para lo que las personas solicitantes deberán autorizar expresamente tales consultas, para constatar el cumplimiento de los requisitos citados, a tenor de lo exigido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

– Certificado expedido por Lanbide que acredite no percibir la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) u otra ayuda económica de carácter análogo, de todas las personas mayores de 18 años que componen la UC.

aa) Certificado expedido por la Mancomunidad Mungialde de Servicios

egiaztatzeko agiria, Gizarte Zerbitzuetako Mungialdeko Mankomunitateak egina.

bb) Mungiako Udaleko Hirigintza Arloak egiaztatuko ditu Lehenengoz okupatzeko lizentziak eta bizigarritasun lizentziak, beraz, interesdunak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharko.

cc) Genero indarkeriaren emakumezko biktima izanez gero, egoera hori ondorengo edozein bitarteko erabiliz egiaztatu beharko da:

- Genero indarkeria hori egon dela egiaztatzen duen lege-epaia.
- Biktimaren alde emandako babes-agindua.

Interesdunak diru-laguntza eskatu aurreko bi urteetan emandakoak izan beharko dute epai edota babes-agindu horiek.

dd) Ordaindu ezinagatik hipoteka gauzatu ondoren erabiltzailea kaleratua izan bada eta etxebizitza judizialki edo notarioaren bidez odolkidetasunaren edo parekotasunaren hirugarren mailara arte ahaiderik ez duen pertsona bati adjudikatu bazaio, kaleratzea adierazten duen epaia aurkeztu beharko du interesdunak.

7. Artikulua.- Osorik ez dauden edo akatsak dituzten eskariak

1. Aurkeztutako eskaria edo erantsi beharreko dokumentazioa osorik ez badaude edo akatsen bat badute, eskatzaileari huts horiek 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio (epe hori errekerimenduaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik gora kontabilizatuko da).

2. Huts horiek ezarritako epean zuzentzen ez badira, eskatutakoan atzera egindakotzat joko dira eskabide hori, eta beraz, prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68. artikuluak ezarritakoari jarraituta.

Sociales de no percibir la Ayuda de Emergencia Social en concepto de ayuda para vivienda.

bb) La licencia de primera ocupación o habitabilidad será verificada por el Área de Urbanismo del Ayuntamiento de Mungia, sin necesidad de que en las solicitudes se aporte la citada documentación.

cc) En el caso de ser mujer víctima de violencia de género, dicha situación habrá de acreditarse mediante cualquiera de los siguientes medios:

- Sentencia judicial acreditativa de la existencia de episodios de violencia de género.
- Orden de protección dictada a favor de la víctima.

Tanto la sentencia como la orden de protección tendrán que haber recaído en los dos años inmediatamente anteriores a la solicitud de la interesada de la subvención.

dd) Quien haya sido desahuciado o desahuciada tras una ejecución hipotecaria, a consecuencia de una incapacidad de pago sobrevenida, y su vivienda haya sido adjudicada judicial o notarialmente a una persona con la que no guarda parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el tercer grado, deberá presentar la sentencia condenatoria de desahucio.

Artículo 7.- Solicitudes incompletas o defectuosas.

1. En el caso de que la solicitud presentada o la documentación preceptiva que la acompaña sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá a la persona solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la notificación del requerimiento.

2. Transcurrido dicho plazo sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistida la solicitud, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015.

8. artikulua.- Ebazteko prozedura eta epea.

Artículo 8.- Procedimiento y plazo de resolución.

1. Alkate-Udalburua izango da ebazteko ahalmena izango duen organoa, Idazkariaren proposamena aztertu ostean. Ebazteko epea hilabete bikoa izango da gehienez ere, eskaria Udaleko Erregistroan sartu denetik edo hutsak zuzendu direnetik gora.

1. El órgano competente para resolver será la Alcaldía-Presidencia, previa propuesta de Secretaría. El plazo máximo para resolver será de dos meses, desde que la solicitud haya tenido entrada en el registro del Ayuntamiento o desde la subsanación de defectos, en su caso.

2. Ebazpenean, gutxienez ere ondoko datuek agertu beharko dute: onuradunen zerrenda, zenbatekoak eta, ezezko kasuetarako, ezezkoa emateko arrazoiak.

2. La resolución contendrá, como mínimo, la relación de personas beneficiarias, las cuantías y la motivación adecuada y suficiente de las denegaciones, en el caso de que se produzcan.

## IV TITULUA. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

## TÍTULO IV. CONCESIÓN DE SUBVENCIONES

9. artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

Artículo 9.- Cuantía de la subvención.

1. Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen kantitatearen %50 izango da gehienez, inoiz ez hilean 250€-tik gora (Bizikidetzako Unitateko) ezta hamabi hilabetetik gora ere.

1. La cuantía de la subvención se establece en un máximo del 50% de la cantidad subvencionable, con un límite máximo de 250€/mes por Unidad de Convivencia y por un período máximo de doce meses.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, urteko diru-sarrera gordin justifikatuak hartuko dira kontuan eta tarte bakoitzari portzentaje bat ezarriko zaio:

2. Para determinar la cuantía se establece un sistema de tramos según los ingresos brutos anuales justificados de las personas solicitantes, adjudicándole a cada tramo un porcentaje:

| Kide 1eko BU / UC de 1 persona | |
|---|---|
| 6.000 – 12.000€ | %50 |
| 12.001 – 16.000€ | %40 |
| 16.000 – 20.000€ | %30 |
| 20.000 – 25.000€ | %20 |

| Kide 2ko edo gehiagoko BU / UC de 2 personas o más | |
|---|---|
| 12.000 – 20.000€ | %50 |
| 20.001 – 25.000€ | %40 |
| 25.000 – 30.000€ | %30 |
| 30.001 – 35.000€ | %20 |

3. Amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezingo da urtean 600 eurotik gorakoa izan.

3. La cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido no podrá superar en su conjunto la cifra de 600€ anuales.

10. artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa.

Artículo 10.- Abono de la subvención.

Ordainketa zatika egingo da, hiruhilekoak amaitutakoan, diru-laguntza emateko ebazpenean agertzen den eran. Hiruhilero egiaztatu beharko da hileko ordainketak egin direla.

El pago se realizará de manera fraccionada, por trimestres vencidos, tal como se indique en la resolución de concesión, debiendo justificarse trimestralmente los pagos de las mensualidades correspondientes.

11. artikulua.- Helburu bera duten beste diru-laguntzekiko bateraezintasuna.

Artículo 11.- Incompatibilidad con otras subvenciones de idéntico concepto.

Gazteei etxebizitza alokatzeko emango zaizkien diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak etxebizitza alokatzeko beste Administrazio Publikoek eta Gizarte Zerbitzuetako Mungialdeko Mankomunitateak ematen dituzten diru-laguntzekin.

La percepción de las ayudas de alquiler para jóvenes es incompatible con la percepción simultánea de subvenciones en concepto de alquiler otorgadas por otra Administración Pública y por la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales.

12. artikulua.- Publizitatea

Artículo 12.- Publicidad.

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Era berean, deialdia Diru-laguntzen Estatuko Datu-Basean argitaratuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17, 18 eta 20. artikuluek ezarritakoari jarraituta; horretaz gain, bai deialdia eta bai oinarriak udalaren web-orrian argitaratu ahal izango dira.

Era berean, Deialdiari dagokion ebazpena Diru-laguntzen Estatuko Datu-Basean argitaratuko da, ondoko legeriak ezarritakoari jarraituta: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa (20. artikulua) eta 887/2006 Errege-Dekretua, uztailaren 20koa, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (30. artikulua). Datu-base horretan ez ezik, Mungiako Udalaren web-orrian ere argitaratuko da.

La presente Ordenanza se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia. Asimismo, la convocatoria se registrará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, organismo que dará traslado del extracto de la convocatoria al Boletín Oficial de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 17, 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, sin perjuicio de que tanto las bases como la convocatoria se publiquen en la web municipal.

Igualmente, se publicará la resolución de la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, en virtud de los artículos 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y el artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, así como en la página web del Ayuntamiento de Mungia.

## V. TITULUA.- KONTROLA ETA JARRAIPENA

## TÍTULO V. CONTROL E INSPECCIÓN

13. artikulua.- Mungiako Udalak egingo duen kontrol-lana

Artículo 13.- Control del Ayuntamiento de Mungia.

Mungiako Udalak prozeduraren edozein momentutan egiaztatu ahal izango du bere horretan betetzen direla diru-laguntza emateko eskatu ziren baldintzak. Horretarako, udal zerbitzuak diru-laguntzaren xede den etxebizitzara joan ahal izango dira edozein momentutan, edota udal datu-baseetan kontsultatu ahal izango dute; betiere,

El Ayuntamiento de Mungia se reserva la posibilidad de verificar, en cualquier momento de la tramitación del procedimiento, la continuidad de las condiciones para el cobro de la subvención. Para ello, los servicios municipales podrán acudir a la vivienda objeto de subvención en cualquier momento, así como consultar las

ezarritako baldintzak bete egiten direla ziurtatzeko huts-hutsean.

bases de datos municipales, con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos.

14. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Artículo 14.- Obligaciones de las personas beneficiarias.

1. Diru-laguntzen onuradunek idatziz adierazi beharko diote Udalari euren egoeran izandako aldaketen berri, baldin eta aldatu den hori onuradun izateko arrazoi izan bada eta aldaketaren ondorioz onuradun izateko baldintza hori galdu badu.

1. Las personas beneficiarias de las ayudas deberán comunicar por escrito al Ayuntamiento de Mungia cualquier modificación de las condiciones que motivaron tal reconocimiento y pueda determinar la pérdida sobrevenida del derecho a la ayuda.

2. Onuradunek baimena eman beharko diote Mungiako Udalari diru-laguntzaren helburu izango den etxebizitza hori ikuskatzeko, baldintzak betetzen dituela egiaztatze aldera (I. Eranskina).

2. Las personas beneficiarias deberán autorizar al Ayuntamiento de Mungia para inspeccionar la vivienda objeto de subvención con el objeto de comprobar el cumplimiento de los requisitos (Anexo I).

VI TITULUA.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA

15 artikulua.- Arau-hauste eta zehapenen erregimena.

TÍTULO VI. RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 15.- Régimen de infracciones y sanciones.

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea ondoko legeriak ezarritakoaren arabera gauzatuko da: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

1. El régimen de infracciones y sanciones se llevará a cabo de acuerdo con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

2. Diru-laguntza ezeztatu egingo da eta, hala badagokio, bidegabe jaso diren zenbatekoak oso-osorik edo zati batean itzularaziko dira, baldin eta Diru-laguntzei buruzkoa den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan jasotzen diren ustezkoetakoren bat gertatzen bada. Gainera, halakoetan berandutze interesak ere eskatuko dira, diru-laguntza ordaindu zenetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen denera bitartekoak.

2. Procederá la revocación de la subvención y, en su caso, el reintegro total o parcial de las cantidades indebidamente percibidas, además de la exigencia del interés de demora correspondiente, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra cualquiera de los supuestos recogidos en el artículo 37 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

3. Itzuli beharreko (dena edo zati bat) kopurua zehazteko, betiere, proportzionaltasun eta ekitate printzipioak aplikatuta. Horretarako, kasu bakoitzak dituen ezaugarriak eta egoera aztertuko dira.

3. Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cuál se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

4. Dirua itzultzeko espedienteak bat etorri

4. El expediente de reintegro se ajustará

beharko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. Tituluarekin. Espediente horretan 15 eguneko entzunaldia eskainiko zaio interesdunari.

a las normas de procedimiento establecidas en el Título IV de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En el mismo se dará trámite de audiencia a la persona interesada por un plazo de 15 días hábiles.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- Araudi hau indarrean egongo da, harik eta aldatu arte edo indargabetuta utzi arte.

BIGARRENA.- Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA.- La presente normativa se mantendrá vigente hasta su modificación o derogación.

SEGUNDA.- La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.